

Krabelin gorriak

Antton Izagirre

Duela mende bat, XX. mendeko gertakari garrantzitsuena, Errusiako Iraultza Sozialistaren aldarrikapena, izan zen. Bada, hura ospatu eta gogoratzera kale-ra atera diren nostalgikoak krabelin gorriak eskuetan ageri dira egunkarietan. Haren harira etorri ziren, ondorengo urteetan, Europan bertan, beste hainbat errepublika sozialista.

Alderaketa errazak alde batera utzita, Kataluniako Errepublika aldarrikatu aurreko egunetan ere, geure begiekin

ikusi ditugu independentziaren aldeko erreferenduma galaraztera heldutako espainiar poliziei krabelin gorriak eskaintzen zizkieten herritarren mobilizazioak, aro berri bat eraikitzaera datozen ustea zabalduz.

Geroak erakutsiko du hala den, baina, gaur-gaurkoz, Eskozian 2014ko irailan izan zen erreferenduma eta Kataluniako Errepublikaren aldeko prozesua XXI. mendeko gertakizun garrantzitsuenen artean daudenik ez dugu zalantzarik batere. Estaturik gabeko

nazioentzat ezinbesteko erreferentzia bilakatu dira.

Ez da erraza jakitea zein izan daitekeen Euskal Herriaren garapen politikoa, baina egunotako gertakariak gogoan, gure subiranotasunaren aldeko aliantzak eta borrokak gertuago daude Katalunia eta Bruselatik Quebecetik baino. Bitxia, bertako politikariak beharrean, Europan etorkizuna eraikitzen auzokak ari direla pentsatzea. Bitartean, espetxean eta erbestean ari direnei, krabelin gorriak. •

Hasierak ez dira beti politikak

Miren Azkarate
Badiola

Gai asko daude tabu edo politikoki ez zuzenak bezala etiketatzen ditugunak. Ez dut sekulako ikerketa soziologikoa egin, baina, inguruan aukera izan dudana emakumei galdetuta, gehiengoak, denek ez esatearren, antzerako erantzunak eman dizkirate.

Txikitatik entzuten dugu haur bat mundura ekartzea zein polita den; hasierako aste eta hilabeteetan behin eta berriro entzuten dira «gozatu orain, berrehala handitzen dira-eta», «ze inbidia» eta antzerako esaldi zoriontsuak. Baina

hasierakoak politetik ez du ezer! Oso oso esperientzia gogorra da. Esperientzia latza da erditzea, eta, segun eta nolakoa izan den erditzea, are gogorragoa: luzea edo motza, epiduralarekin edo gabe, zesarea edo ez, odol asko galduta edo ez, plazenta erraz atera edo ezin atera, instrumentalizatua edo ez... Ondorioz, erditzen duen emakumea fisikoki txikituta geratzen da. Alua birrinduta, oinarritzko beharrak egiteko ere zailtasunekin. Ondorengo egun eta asteetan hilerokoa odol jario handiarekin eta burdin usainarekin.

Bularra ematea ere zerbait sinplea bezala azaldu digute beti, beno ba, horixe ere ez da guztiz egia. Esnearen igoerak sukarra igo dezake, infekzioak egon daitezke (mastitisak), zauriak titi buruetan... Denak oso mingarriak.

Psikologikoki gauza guzietarako 24 orduz zure beharra duen txiki bat izatea ondoan nekagarria da. Horrez gain lo gutxi egiten da (edo ezer ez) eta etxean bi izatetik hiru izatera pasatzean hori guztia enkajatzeta ez da lan makala.

Zergatik ez didate argi eta garbi hitz egin izan honi buruz? •